

ZAINDU EZAZU URA KOMUNEAN

Ba ahal zenekien badirela kontsumo baxuko komunak? Hustutze bakoitzeko 6 l erabiltzen dituzte. Garai batean 16 l erabiltzen zituzten. 10 l aurreztu egiten dira!

Asteko erronka!

Garai bateko tanga baduzu alda dezakezu...ez izan egiteko dudarik.

*Ur garbia hartzeak bizia ematen digu,
Kontzientzia hartzeak ur garbia ematen digu*



Katea botatzerakoan erabili ezazu hustutze mugatua duen sakagailua eta holakorik ez baduzu sar ezazu botila bat ur tanga barruan espazioa hartzeko.



Aldizka berrikusi ezazu burdineria, flotagailua eta balbula zigilatzailea.



Beharrezkoa bada, alda ezazu burdineria diseinu eta kalitate hobeko batengatik. Burdindegietan topatuko dituzu.



Ez ezazu komuna hustu papera besterik ez eramateko, ez bait du usain txarrik sortzen.



Ez ezazu komuna zakarrontzi bat bezala erabili, zigarro kinak, paper zapi bustiak, kotoia edo bestelakoak botatzeko. Hobe duzu zabor bakoitzari dagokion edukiontzian botatzea.

